

/2018 FORU DEKRETUA, ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoaren (EIT) erabilera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurrerapen handia ekarri zuen administrazio prozeduren kudeaketan Administrazio Publiko elektronikoa erabiltzeari dagokionez, eta aldi berean, lehentasuna eman zitzaion jakinarazpen elektronikoei, zeinak egiten baitira egoitza elektronikoan edo gaitutako helbide elektroniko bakarrean, kasu bakoitzean dagokiona.

Horrez gain, zehaztasun egokiz bereizten ditu identifikazio elektronikoko sistema eta sinadura elektronikoko sistema, eta orobat, sinplifikatu egiten ditu horiek akreditatzeko eta erabiltzeko bitartekoak. Hala bada, zehazten du ezen oro har identifikazio elektronikoa soilik behar izanen dela, eta sinadura elektronikoa eskatuko dela soilik interesdunaren borondatea eta baimena akreditatu behar den kasuetan.

Halaber, lege horretan zehazten da, beste berritasun batzuen artean, zein diren administrazio publikoarekin ezinbestean hartu-eman elektronikoa izan behar duten subjektuak. Horri dagokionez, 14.2 artikuluan jasotzen da ezen hartu-emanetarako bitarteko elektronikoa erabili behar dituztela ezinbestean honako hauek, gutxienez: pertsona juridikoek, izaera juridikoa ez duten entitateek, lanean aritzeko nahi eta nahi ez kolegiatuta egon behar dutenek, administrazioarekin hartu-eman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnek, bai eta administrazio publikoetako langileek ere, langile publiko diren aldetik administrazio publikoekin egiten dituzten tramite eta jarduketetarako.

Gainera, lege testu horren 14.3 artikulua ezartzen du ezen erregelamendu bidez Administrazioek ezartzen ahalko dutela nahitaezkoa dela bitarteko elektronikoen bidez jartzea harremanetan, bai prozedura batzuetarako, bai eta, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo egiaztaturiko beste arrazoiren

batengatik, behar diren bitarteko elektronikoez baliatzeko aukera duten pertsona fisikoen zenbait kolektiborentzat ere.

Hala, Administrazio publikoekin hartu-eman elektronikoa izateko betebeharra, beraz, betebehar orokor gisa ulertu behar da, zeinaren arabera tresna elektronikoak erabili behar baitituzte (administrazio publikoak herritarren esku jarri dituenak) horretara beharturik dauden subjektuek. Betebehar horrek berekin dakar, alde batetik, eskaera edo dokumentu mota oro entitate publikoaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztea, eta aitorpenak edo autolikidazioak bitarteko telematikoak baliatuz aurkeztea; eta berekin dakar, halaber, administrazio publikoaren aldetik jakinarazpen elektronikoak jasotzea.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko tributu arloan, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak, tributu kudeaketako prozedura arautu zuenez gero, bere 99.5 artikuluan ezartzen du zein diren jakinarazpen elektronikoaren oinarrizko lerroak, eta eskumena ematen zaio erregelamenduari intereseko espezialitateak zehazteko.

Lege xedapen hori betetzeko, uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuak bere 30. artikuluan zehazten du ezen gaitutako helbide elektronikoa izanen dela jakinarazpen elektronikoa egiteko sistema, eta adierazten da, halaber, zerbitzua emateko moduen ezaugarriak eta funtzionalitateak foru agindu bidez arautuko direla, ekonomian eta ogasunean eskumena duen departamentuko titularrak emanda. Bestalde, 32. artikuluan zehazten da zer entitate dauden behartuta jakinarazpenak bitarteko elektrikoen bidez jasotzera Nafarroako Zerga Ogasunaren aldetik hark egindako zeinahi zerga jarduketa eta prozeduratan.

Oinarri hartuta uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren 30. artikuluan jasotzen den helbide elektronikoaren gaikuntza, onetsi zen Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren abenduaren 18ko 148/2006 Foru Agindua, Nafarroako Zerga Ogasunaren eremuan jakinarazpen elektronikoaren zerbitzua arautzen duena, baita zergapekoek gaitutako helbide elektronikoan jakinarazpenik ez egiteko egunak adierazteko aukera ere.

Irailaren 26ko 77/2018 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua aldatzen duenak, jasotzen du bere azken xedapenetako

lehendabizikoan aldaketa bat uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren 32.1 artikulua erantzutuz, jakinarazpen elektronikoa jasotzeko betebeharrak zabalitzeko pertsona fisikoek zenbait kolektibotara, dagozkion tresna informatikoak eskura izatea bermatzen duten baldintzak betez gero. Horrenbestez, aurrerantzean hauek ere izanen dira jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzeko betebeharrak dutenak: lanean aritzeko ezinbestean kolegiatuta egon behar duten jarduerak profesionalak egiten dituzten pertsona fisikoak; baimena dutenak hirugarrenen izenean jakinarazpen elektronikoa jasotzeko Nafarroako Zerga Ogasunak egindako zeinahi zerga jarduketa eta prozeduratan; eta baimena dutenak hirugarrenen izenean fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa egiteko, baldin eta horrek aukera ematen badu Balio Erantsiaren Zergaren erregistro liburuak eramateko Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez.

Kontuan hartuta administrazio publikoek, beren jardunean, asmo nagusitzat izan behar duela efikaziaren oinarritzeko printzipioa sustatzea eta interes orokorreari erantzutea, eta kontuan hartuta, halaber, horretarako beharrezkoa dela modu orokorrean eta ohikotasunez erabiltzea informazioaren teknologiak herritarrek administrazioarekin duten hartu-emanen, beste bulkada bat eman nahi zaio jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egiteari Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan. Horrenbestez, eta bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako administrazio arau orokorrekin, beharrezkoa da zenbait aldaketa sartzea aipatu uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuan.

Batetik, helburua da Nafarroako Zerga Ogasunak jakinarazpen elektronikoa egitea uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren 31.1 artikulua berriaz ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona eta entitateei, aurrez komunikatu gabe jakinarazpenen sistema horretan sartuta daudela. Beraz, proposatutako aldaketa horrekin, pertsonak eta entitateak behartuta badaude 50/2006 Foru Dekretuaren 31.1 artikulua berriaz arabera administrazio jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzeko Nafarroako Zerga Ogasunaren aldetik, ez dute aurrez jakinarazpenik jasoko jakinarazpen elektronikoen sisteman ezinbestean sartuta daudela aditzera emateko.

Helburua da, orobat, guztiz ezabatzea foru dekretuaren testutik gaitutako helbide elektronikoen aipamen oro, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egiteko modu gisa, abenduaren 18ko

148/2017 Foru Aginduan baitago hori araututa. Izan ere, foru dekretuan jakinarazpen mota horri berariazko aipamena egiteak ez dio inolako baliorik ematen bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenaren funtzionamendu egokiari.

Horrez gain, eta interesdunen segurtasun juridikoa areagotzeko asmoz, neurri berri batzuk ezartzen dira jakinarazpenen kalitatea hobetzeko, eta zergapekoari bermatuko zaio jakinarazpenen berri izanen duela, jakinarazpen abisuak bidaliz, hori posible den heinean, interesdunak berak komunikatutako helbide elektronikora.

Aldaketa bat egingen da 31.2 artikulua berrian araututako prozeduran ere, helburu harturik zergapekoak aukera izatea nahitaezko jakinarazpen elektronikoen sistematik ateratzeko eskatzeko, baldin eta desagertu badira aipatu sisteman sartzeko zergapekoak zituen inguruabarrak. Eskaera hori Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean erabilgarri dagoen zerbitzu telematikoen bidez egiten ahal da soilik, Interneteko honako helbide honetan: <https://hacienda.navarra.es>.

II. kapituluaren edukia ere eguneratzen da, identifikazio eta sinadura elektronikoei buruzkoa, hori ere bat etor dadin Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearekin. Testuinguru honetan idazketa berria eman zaie 14. eta 15. artikuluei. Lehenak jasotzen ditu identifikazio elektronikoko sistemak onartzeari eta erabiltzeari buruzkoak. Bigarrena sinadura elektronikoko sistemen erabilerari buruzkoa da. Alde horretatik, indargabetzen dira 16. artikulutik 19. artikulura artekoak, biak barne, haien edukia ez baitator bat hartu-eman administratiboetan teknologia berriak aplikatzeari buruz indarrean dagoen araudiarekin.

Horrenbestez, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluaren txostenarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 2018ko XXko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.-Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen (EIT) erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretua aldatzea.

Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen (EIT) erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren hurrengo aginduek ondoko testua izanen dute:

Bat. 1.2 artikulua.

"2. Foru dekretu honen xede izanen dira bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikokoak erabiltzeko ondorioetarako une bakoitzean benetan operatibo dauden tramite eta prozedurak. Interesdunek Interneteko helbide honetan izanen dute eskura zerrenda hori: <https://hacienda.navarra.es>. Hala ere, tributu arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru aginduaren bidez, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko baita, aukera izanen da zabaltzeko edo mugatzeko bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen erabilera beste tramite eta prozedura batzuetara, foru dekretu honetan ezarritako bermeekin bat."

Bi. 7.2.c) artikulua.

"c) Jakinarazpena partikularrei egiten zaienean, horiek eskatu edo berariaz onartu baldin badute, edo, 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoarekin bat, jakinarazpen elektronikoa derrigorrezkoa denean."

Hiru. 14. artikulua. Identifikazio elektronikoko sistemak.

"14. Kapituluak. Identifikazio elektronikoko sistemak.

1. Nafarroako Zerga Ogasunak onartzen ahal ditu indarreko araudian ezarritako interesdunen identifikazio sistemak, araudian ezarritako terminoetan eta betiere sistema horiek aurretiazko erregistro bat baldin badute erabiltzaile gisa, interesdunen nortasuna bermatu ahal izateko.

2. Ogasunaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez zehaztuko da zer identifikazio sistema

dauden onartuta tramite eta prozedura jakin batzuetarako; edonola ere, ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako sistemak beti izanen dira onartuak.

3. Identifikazio sistemak erabiltzen ahalko dira sinadura sistema gisa baldin eta aukera ematen badute interesdunen borondate eta baimen adierazpena benetakoa dela akreditatzeko, aplikagarri den araudian hala ezarrita badago.”

Lau. 15. artikulua. Sinadura elektronikoko sistemak.

“15. artikulua. Sinadura elektronikoko sistemak.

1. Zeinahi pertsona fisikok edo juridikoak, publiko zein pribatuk, zilegi izanen du hartu-eman izatea Nafarroako Zerga Ogasunarekin bitarteko elektronikoen bidez, indarreko araudian ezarritako sinadura sistemak baliatuz, araudi horretan aurreikusitako terminoetan.

2. Ogasunaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez zehaztuko da zer sinadura sistema dauden onartuta tramite eta prozedura jakin batzuetarako; edonola ere, ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako sistemak beti izanen dira onartuak.

3. Baldin eta bitarteko elektronikoen bidez egiten diren eta pertsona batek baino gehiagok sinatu beharrekoak diren tramite eta prozedurak badira, haietako bakoitzak elektronikoki sinatu beharko ditu beti, aurreko apartatueta adierazitako sinadura sistemak erabiliz.”

Bost. 23.2 artikulua.

“2. Erregistro telematikotik bidaltzen zaizkienean aitorpenak, eskaerak, idatziak eta komunikazioak organo eskudunei tramita ditzaten, segurtasun neurri egokiak hartuko dira teknikaren egoeraren arabera, baimendu gabeko sarbiderik izan ez dadin, eta komunikazioak

atzeman edo aldatu ez daitezzen, eta, kasu orotan, datu pertsonalen babesa bermatzeko, aplikagarri den araudian ezarritakoa betez.”

Sei. 29.1. artikulua eta 6., 7. eta 8. Apartatuak gehitzea.

“1. Nafarroako Zerga Ogasuneko organoek bide elektronikoen bidez egingen dituzte jakinarazpenak, interesdunak hala eskatu edo berariaz onartu badu, edo, 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoarekin bat, jakinarazpen elektronikoa derrigorrezkoa denean.”

“6. Bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak ezinbestean bete beharko ditu antolamendu juridikoak jakinarazpen administratiboei ezartzen dizkien baldintzak erabateko balio eta eraginkortasuna izateko; hauek bereziki:

a) Jakinarazpenaren xedeko egintza interesdunaren eskura jarri zen eguna eta ordua akreditatuko ditu.

b) Interesdunak edukia ikusi zuen eguna eta ordua akreditatuko ditu.

c) Erabileraren eskusibotasuna eta erabiltzailearen identitatea bermatzeko autentifikazio tresnak izanen ditu.”

“7. Tributu arloko eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu baten bidez arautuko da zerbitzu hori emateko moduari, ezaugarriei eta funtzionalitateei lotutakoa, bai eta tributudunek jakinarazpen mota hori ez egiteko egunak adierazteko aukera ere.”

“8. Jakinarazpen elektronikoko zerbitzuak abisu sistema bat gaituko du gailu elektronikoen bidez eta/edo helbide elektronikoen bidez, eta balioko du interesdunari jakinarazteko baduela jakinarazpen elektronikoa bat. Hala ere, horretarako, interesdunak gailu elektronikoa bat eta/edo helbide elektronikoa bat identifikatu beharko du, eta hara bidaliko dira aipatu abisuak, baina ez du balioko jakinarazpenak egiteko.”

Zazpi. 31. artikulua 30. artikulua izanen da, eta 1., 2. eta 4. apartatuak aldatzen dira.

"30. artikulua. Jakinarazpenak bide ez-elektronikoen bidez egiteko kasuak.

"1. Hurrengo artikuluan aipatzen diren entitateek bide elektronikoen bidez jaso beharko dituzte Nafarroako Zerga Ogasunak bidaltzen dizkien jakinarazpen administratiboak."

"2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Zerga Ogasuneko organoek bide ez-elektronikoen bidez egiten ahalko dituzte jakinarazpenak kasu hauetan, betiere Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 99. artikuluan ezarritako toki eta moduetan:

a) Tributuduna edo bere ordezkaria bat-batean agertzen denean Nafarroako Zerga Ogasuneko bulegoetan eta jakinarazpen pertsonala eskatzen duenean. Aukera hau ez dagokio tributudunari b) letrako inguruabarrak gertatzen direnean.

b) Jarduketa administratiboa berehala edo lehenbailehen jakinarazi behar denean bere eraginkortasuna segurtatzeko, eta jakinarazpen elektronikoen bidez hori bateraezina denean."

"4. Jakinarazpen hauek ez dira inolaz ere bitarteko elektronikoen bidez eginen:

a) Jakinarazi beharreko egintzak formatu elektronikoko bihurtu ezin diren elementuak dituenen.

b) Berariazko arau bati jarraikiz tributudunaren helbide fiskalean egin behar denean, edo arauak horretarako ezartzen duen beste toki batean, edo modu ez-elektroniko baten bidez.

c) Kreditu entitateetan ireki diren kontuetan diruaren enbargoa bide elektronikoen bidez egiteko prozedurari atxikiak dauden kreditu entitateei zuzendu beharrekoak.

d) Nafarroako Zerga Ogasunaren diru bilketaren kudeaketan entitate laguntzaile gisa aritzen diren kreditu entitateei laguntza zerbitzu horretan zuzendu beharrekoak.

e) Nafarroako Zerga Ogasunaren eta kreditu entitateen artean fitxategiak elkartrukatzeko prozedura elektronikoki atxikiak dauden kreditu entitateei zuzendu beharrekoak.”

Zortzi. 32. artikulua 31. artikulua izanen da, eta 2. apartatua aldatzen da.

“31. artikulua. Jakinarazpen elektronikoa jasotzera behartuta daudenak.

“2. Zergapekoa jakinarazpen elektronikoko sistematik kanpo geratuko da sistema horretan sartzeko egoerak gertatzeari utzitakoan, betiere eskatzen badu Nafarroako Zerga Ogasunaren web-orrian eskuragarri dagoen zerbitzu telematikoen bidez, Interneteko helbide honetan: <https://hacienda.navarra.es>. Jakinarazpen elektronikoko sistematik kanpo geratzeko eskaera egiteak bide horretatik berekin dakar baja ematea sisteman berehalakoan.

Hala ere, baldin eta aplikazio informatikoak hautematen badu bere horretan jarraitzen dutela jakinarazpen elektronikoko sisteman ezinbestean sartzeko inguruabarrek, jakitera emanen da, bide beretik, eskaera ukatu dela.

Gerora gertatuko balira, behin sistematik ateratakoan, jakinarazpen elektronikoko sisteman ezinbestean sartzeko inguruabarrak, bestelako tramiterik gabe berrezarriko da jakinarazpenen bidalketa elektronikoa.”

Bederatzi. 32. Bis artikulua 32. Artikulua izanen da.

“32. artikulua. Jakinarazpen elektronikoak egitea.

Jakinarazpenen hartzaileek eta haien ordezkariak, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera, aukera izanen dute onartutako identifikazio elektronikoko sistemen bidez Nafarroako Zerga Ogasunak egindako jakinarazpen elektronikoen edukira sartzeko, indarreko arauan ezarritakorekin bat.

Pertsona juridikoek eta izaerarik gabeko entitateek pertsona juridiko edo entitateari dagokion sinadura elektronikoaren sistema erabiliko dute jakinarazpen elektronikoak ikusteko.

Nafarroako Zerga Ogasunak ziurtatuko du egintza bat jakinarazi dela elektronikoki, jakinarazpenen zerbitzua ematen duenak bidali behar duen informazioarekin bat. Ziurtapena modu automatizatuan sortzen ahalko da, eta datu hauek izanen ditu: jakinarazitako egintzaren identifikazioa, hartzailea, interesdunaren eskura jarri zen eguna eta edukia ikusi zen eguna edo jakinarazpena lege ezarritako epea igarotzeagatik errefusatzat jo zen eguna.”

Hamar. 32.ter artikulua 32. bis artikulua izanen da, eta 3.c) apartatua aldatzen da.

“32. bis artikulua. Zergapekoen ordezkari bide elektronikoen bidez bidaltzea jakinarazpenak.”

“c) Internet bidez, identifikazio eta autentikazio sistemaren bat erabiliz, baldin eta indarreko araudian ezarritakoaren arabera onartua bada.”

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetzen dira 16., 17., 18., 19. eta 30. artikulak, bai eta xedapen gehigarri bakarra eta eranskina.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera hartuko du indarra.

